

"ASKO IKASI DUGU "WIKIA" TALDEAN EGITEN ETA OSO GUSTURA EGIN DUGU LAN"



Itziar Ulazia | Elgoibar Ikastola | Lehen Hezkuntza 2

Elgoibar Ikastolako Itziar Ulazia da "Izarrak5" taldearen irakasle arduraduna. Talde horrek lortu du Kosmodisea Grapho Planetan Lehen Hezkuntza 2 kategorian puntu gehien.

Nola jaso du taldeak Ikono Planetaren aldetik jasotako saria?

Oso pozik. Hasieran nahiko harrিতuta utzi gintuen, baina ondoren poz handia hartu genuen.

Fase hau egiterakoan, zer iruditu zitzaizen zailena?

Argazkiak eta bideoak igotzen ikastea. Baita "wikia" pixkanaka osatzeko ideiak pentsatzea ere.

Grapho Planeta Kosmodisea lehiaketako aurtengo edizioan txertatu den berritasuna da. Zer iruditzen zaizu fase berri hau txertatzea? Kosmodiseako beste edizioetan parte hartu baduzue, oraingo faseen programazioa beste urteetakoak baino hobek ala okerragoak iruditu zaizkizue? Oso ondo iruditu zaigu. Egia esan, Grapho Planeta Ikono fasea baino gehiago gustatu zaigu. Askok ikasi dugu "wikia" egiten eta oso gustura egin dugu lan.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

Bideoa egitea, taldean lan egitea eta, nola ez, "wikia" osatzen joatea. Azken hori oso interesgarria eta dibertigarria izan da.

Eta zeintzuk dira Kosmodisean parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

Testuak pentsatzea eta bigarren eskuko azoka antolatzea.

Nola egiten diozue aurre Kosmodisea 2011-2012ko datorren azken "Mito" faseari?

Taldean lan eginez, eta ilusio eta lanerako gogo handiz.